

AMEZKETAKO TOKIKO 2030 AGENDA EKINTZA-PLANA



Amezketako Udala

AMEZKETAKO UDALA, 2021-2022

Fernando Amezketarraren plaza z/g

20268 Amezketa (Gipuzkoa)

Tel. 943 65 31 89



www.amezketa.eus



udala@amezketa.eus



@AmezketakoUdala



Amezketeta APP

Edukia: Dokumentu hau **ADOS Sostenibilidad y Clima, S.L.**-rekin lankidetzan eratu da.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren Ingurumen eta Obra Hidraulikoen Sailaren laguntzarekin.

AMEZKETAKO TOKIKO 2030 AGENDA

EKINTZA-PLANA

Amezketako ekintza-plana 3 mailatan egituratu da:

- **Lerro-estrategikoak (LE):** Ekintza-plana egituratzen duten lan-ildo nagusiak dira.

LE1: GARAPEN JASANGARRIKO HELBURUEKIN BAT DATORREN GOBERNANTZA-EREDU BERRIA

LE2. HERRITARREN ONGIZATEA ETA BIZI KALITATERAKO ESKAINTZA INTEGRALAZ GOZATZEN DUEN GIZARTEA

LE3. BALIABIDEEN KUDEAKETA IRAUNKORRA ETA ERABILERA ARDURATSUA SUSTATZEN DUEN HERRIA

LE4. LANDA EREMU BIZI BATEKIN, BERE ONDARE NATURALAREKIN ETA BERTAKO INDUSTRIAREKIN BAT EGITEN DUEN HERRIA

- **Programak:** Lerro-estrategikoen azpian, ekintza mota multzo bat barne biltzen dute.
- **Ekintzak:** Udalerrian martxan jarriko diren ekintza konkretuak dira.

Jarraian, ekintza-plana laburtzen duen eskema ikus daiteke, 3 maila desberdinak eta ekintza bakoitzak zein Garapen Jasangarriko Helbururekin lotzen den adieraziz:

LE1. GARAPEN JASANGARRIKO HELBURUEKIN BAT DATORREN GOBERNANTZA-EREDU BERRIA

1.1. UDAL KUDEAKETA EREDU BERRI BATERANZKO BIDEARI EGIN ETA ALIANTZAK SUSTATU



1.1.1. Ekintza-planaren urteroko ebaluazioa eta segimendua sistematizatu.



1.1.2. Barne koordinaziorako egitura finko bat sortu eta aktibo mantendu.



1.1.3. Udalsarea 2030ean parte-hartze aktiboa izatea (ikasitako lezioak partekatzeke, esperientzia berriak ezagutzeko eta landa-ikuspegia duen 2030 Agendari ikusgarritasuna emateko).

1.2. UDAL EKINTZA HERRITARRENGANA GERTURATU ETA PARTE-HARTZE AKTIBORAKO ESPAZIOAK SORTU



1.2.1. Udalaren dirulaguntzen Plan Estrategikoan txertatu berri den GJH-en aldeko ekimenak sustatzeko lan-lerroa ezagutzera eman eta euren segimendua egin.



1.2.2. Eskola 2030 Agenda bultzatzea eta Udal Planarekiko lotura egiteko lanketari ekin.



1.2.3. Planaren aurrerapenak herritarrekin partekatzea eta urteko kudeaketan parte har dezaten erraztea.



1.2.4. Udalaren eta bizilagunen arteko komunikazio-kanalak indartzea eta eguneratzea.

LE2. HERRITARREN ONGIZATEA ETA BIZI KALITATERAKO ESKAINTZA INTEGRALAZ GOZATZEN DUEN GIZARTEA

2.1. GUZTIONTZAT ETA ADIN GUZTIETAN BIZIMODU OSASUNGARRIA BERMATZEKO NEURRIAK HARTU








2.1.1. Jubilatuen txokoaren eskaintza zabaldu eta espazioa dinamizatzea.




2.1.2. Kultur-etxean eskaintzen diren jardueren eskaintza zabaltea, eskaerari egokitutako aukerak emanez.

	2.1.3. Beltzaren plazako aisialdi gunea egokitzea (abian).
	2.1.4. Kirola herrian bertan sustatzea, eskaintza anitza propioa landuz.
	2.1.5. Eskola-kirola sustatzeko lanketa zein jarraipena egin.
2.2. BALIOAK ETA EZBERDINEN ARTEKO BIZIKIDETZA SUSTATZEKO BALIABIDEAK JARRI	
	2.2.1. Udal barruan genero ikuspegiaren lanketari jarraipena eman, hainbat prozeduratan genero ikuspegia txertatuz.
	2.2.2. Gazteekin berdintasunaren aldeko baloreak eta jarrerak sustatzeko jarduera zehatzak antolatu.
2.3. EUSKARA ETA HERRIKO ONDARE KULTURALA ERDIGUNEAN JARRI	
	2.3.1. Etorकिनak, orokorrean, udalerrian hobeto integratzeko neurri zehatzak aztertu (harrera kulturala, hizkuntzaren ezagutza minimoa, gizartean parte-hartze aktiboa, etab.).
	2.3.2. Udalerraren ondare kulturala sustatzeko ekintzak sustatu eta baliabideak bideratu (Fernando Amezketarra, Aralarko meategiak etab.)
LE3. BALIABIDEEN KUDEAKETA IRAUNKORRA ETA ERABILERA ARDURATSUA SUSTATZEN DUEN HERRIA	
3.1. URAREN PEDAGOGIA SUSTATU: EZAGUTZA, ZAINTZA ETA KUDEAKETA	
	3.1.1. Ur-kontsumoaren azterketa abiarazi (etxeetan, jardueretan...).
	3.1.2. Ur-hornidura hobekuntzarako obrak egin Ugarte auzoan (abian).
3.2. ENERGIA ESKURAGARRIA, FIDAGARRIA, JASANGARRIA ETA MODERNOAREN ALDEKO NEURRIAK HARTU	

	<p>3.2.1. 4/2019 Legearen eskakizunekin aurrera egin, energiaren inguruko inbentarioak, kontsumoen neurketa eta planak beteaz.</p>
	<p>3.2.2. Zazpiturriko zentral hidroelektrikoan eguzki plakak jartzeko ikerketa egin (abian)</p>
	<p>3.2.3. Herriko eskolan berokuntza sistema eraginkorragoa ezartzea.</p>
	<p>3.2.4. Udalerrian Tokiko Energia Komunitatea sustatzeko azterketa abiarazi (Aldundiak bultzatzen duen eredu jarraituz).</p>
<p>3.3. PREBENTZIOAN, BERRERABILPENEAN ETA BIRZIKLAPENEAN OINARRITUTAKO HONDAKINEN POLITIKAREKIN AURRERA EGIN</p>	
	<p>3.3.1. Hondakinen sorrera eta bilketari buruzko adierazleak aztertu eta etengabeko hobekuntzarako lan-lerro bat abiarazi.</p>
	<p>3.3.2. Aldizka herritarrei hondakinen sorrerari eta gaikako bilketari buruzko informazioa ezagutzera eman.</p>
<p>3.4. KLIMA ALDAKETAREN ALDEKO EKINTZA PLANIFIKATU ETA AURRERA ERAMAN</p>	
	<p>3.4.1. Udallerriak klima aldatari nola eragiten dion aztertu eta aditzera eman (Udalsareak udalerrien eskura jartzen dituen tresnak erabiliz, Berotegi Eftuko Gasen inbentarioa kalkulatu).</p>
	<p>3.4.2. Udalaren zaurgarritasuna eta arriskua aztertu eta berau kontuan hartu AHAPO-an.</p>
	<p>3.4.3. Klimaren aldeko eskualdeko ekimenetan aktiboki parte hartzea eta ekimen horiek udalerrian ezagutaraztea.</p>
<p>LE4. LANDA EREMU BIZI BATEKIN, BERE ONDARE NATURALAREKIN ETA BERTAKO INDUSTRIAREKIN BAT EGITEN DUEN HERRIA</p>	
<p>4.1. LEHEN SEKTOREA SENDOTU ETA MARTXAN DAUDEN EKIMENAK BABESTU</p>	
	<p>4.1.1. Bertako produktuen kontsumoa sustatzeko ekimen zehatz bat abian jarri.</p>

	<p>4.1.2. Amezketako “Larrondo” mendi publikoko bideak hobetzea.</p>
<p>4.2. NATURA-ONDAREAN BALIOAN JARRI ETA TURISMO ESKAINTZA PROPIOA LANDU</p>	
	<p>4.2.1. Amezketako eremu natural ezberdinen (Arritzagako Glaziarra, Zazpiburriko iturburua eta eskalada gunea, etab.) inguruko jarduera-programak definitu.</p>
	<p>4.2.2. <i>Pello Zabala Gunearen</i> proiektua aurrera eraman eta honen inguruko jardueren eskaintza landu.</p>
<p>4.3. INDUSTRIA SEKTOREAREKIN HARREMANAK ESTUTU ETA ELKARLANERAKO BIDEAK ZABALDU</p>	
	<p>4.3.1. Udalerrian bertan kokatuta dauden bi enpresa nagusiekin harremanak estutu (2030 Agendarekin lerrokatuta egon daitezkeen proiektuak proposatuz, enpresa eta Udalaren arteko aliantzak sustatuz).</p>
	<p>4.3.2. Udalerrian kokatu daitezkeen jarduera berriak erakartzeko bideak zabaldu.</p>

LE1. GARAPEN JASANGARRIKO HELBURUEKIN BAT DATORREN GOBERNANTZA-EREDU BERRIA

EKINTZA 1.1.1.	EKINTZA-PLANAREN URTEROKO EBALUAZIOA ETA SEGIMENDUA SISTEMATIZATU	
PROGRAMA 1.1.	UDAL KUDEAKETA EREDU BERRI BATERANZKO BIDEARI EKIN ETA ALIANTZAK SUSTATU	

Amezketako Tokiko 2030 Agenda Plana burutu ostean, plana bera urtero ebaluatzea eta jarraipen sistematizatu ematea da ekintza honen helburua. Horretarako, planean definitu diren adierazleen kalkulua egin eta planeko ekintzen lorpen-maila estimatu beharko da urtero. Jarraipen honetan lagungarria izango da Udalsarea 2030-ek udalerrien zerbitzura jartzen duen *e-mugi* erraminta, zeinak urteroko udalerriaz gaindiko adierazleen informazioa ematen duen.


Ekintza Planean ezarritako helburuak lortzen direla bermatzeko eta horien egokitasuna baloratzeko, urtero honako jarduera hauek egingo dira Udalsarearen metodologia erabiliz:

-Ekintza Planaren ebaluazioa.

-Tokiko jasangarritasun-adierazleak kalkulatzeko.

-Jardueren programazioa eta eguneratzeko proposamena (neurri zuzentzaileak), adierazleen ebaluazioaren eta emaitzen arabera.

EPEA [Motza, Ertaina, Luzea]	LEHENTASUNA [Baxua, Ertaina, Altua]
Motza	Altua
KOSTUA [€]	GAIA [01-24]
0	22. GARDENTASUNA
ARDURADUN NAGUSIA	BESTE ARDURADUNA
Ingurumen Teknikaria	Idazkaria

EKINTZA 1.1.2.	BARNE KOORDINAZIORAKO EGITURA FINKO BAT SORTU ETA AKTIBO MANTENDU	
PROGRAMA 1.1.	UDAL KUDEAKETA EREDU BERRI BATERANZKO BIDEARI EKIN ETA ALIANTZAK SUSTATU	


Tokiko 2030 Agenda Ekintza Planean jasotzen diren lerro estrategiko eta ekintza multzo guztiak garatzeko, baita Formulazio Estrategikoan zehaztu diren xedeen betetze mailaren jarraipena egiteko ere, barne-koordinaziorako talde finko bat sortuko da. Bertan parte hartuko duten giza baliabideak udaleko langileek zein ordezkari politikoek osatuko dute.

EPEA [Motza, Ertaina, Luzea]	LEHENTASUNA [Baxua, Ertaina, Altua]
Motza	Altua
KOSTUA [€]	GAIA [01-24]
0	21. KOORDINAZIOA
ARDURADUN NAGUSIA	BESTE ARDURADUNA
Ingurumen Teknikaria	Idazkaria

EKINTZA 1.1.3.	UDALSAREA 2030en PARTE-HARTZE AKTIBOA IZATEA	17 HELBURUAK LORTZEKO ITUNAK 
PROGRAMA 1.1.	UDAL KUDEAKETA EREDU BERRI BATERANZKO BIDEARI EKIN ETA ALIANTZAK SUSTATU	

Amezketako Udalak Udalsarea 2030 sarean parte-hartze aktiboa hartzea du helburu ekintza honek, Tokiko 2030 Agenda Plana osatzerakoan ikasitako lezioak partekatzeko, esperientzia berriak ezagutzeko eta landa-ikuspegia duen 2030 Agendari ikusgarritasuna emateko asmoz. Udalsarea 2030-ek antolatzen dituen lan-taldeetan, zein foroetan parte-hartzeko konpromisoa hartzen du udalak, eta baita, beste partaideekin informazioa zein esperientzia partekatzekoa.

EPEA [Motza, Ertaina, Luzea]	LEHENTASUNA [Baxua, Ertaina, Altua]
Motza	Ertaina
KOSTUA [€]	GAIA [01-24]
0	22. GARDENTASUNA
ARDURADUN NAGUSIA	BESTE ARDURADUNA
Ingurumen Teknikaria	Idazkaria

EKINTZA 1.2.1.	UDALAREN DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOAN GJH-EN ALDEKO EKIMENAK SUSTATZEKO LAN-LERROA EZAGUTZERA EMAN ETA EUREN SEGIMENDUA EGIN.	
PROGRAMA 1.2.	UDAL EKINTZA HERRITARRENGANA GERTURATU ETA PARTE-HARTZE AKTIBORAKO ESPAZIOAK SORTU	

Udalaren Diru-laguntzen Plan Estrategikoan lerro berri bat gehitu berri du Amezketako Udalak, Garapen Jasangarriko Helburuen aldeko ekimen zein proiektuak sustatzea helburu duena. 7. Lerro-estrategiko honen helburua honakoa da: *"Egun gizartean dauden kezkei erantzutea Garapen Jasangarrirako Helburuekin lerrokatuta daudenak, ingurumenaren arloan, energia berriztagarrien arloan, elikaduraren arloan, mugikortasun jasangarriaren arloan..."* urtebeteko exekuzio epea izango du, eta udalaren funts propioekin finantziatuko da.

Ekintza honen helburua Plan Estrategikoan jasotzen den lerro berri hau ezagutzera ematea da, eta honen segimendu jarraitua egitea.

EPEA [Motza, Ertaina, Luzea]	LEHENTASUNA [Baxua, Ertaina, Altua]
Ertaina	Ertaina
KOSTUA [€]	GAIA [01-24]
1000	21. GARDENTASUNA
ARDURADUN NAGUSIA	BESTE ARDURADUNA
Idazkaria	Ingurumen Teknikaria

EKINTZA 1.2.2.	ESKOLA 2030 AGENDA BULTZATZEA ETA UDAL PLANAREKIKO LOTURA EGITEKO LANKETARI EKIN	
PROGRAMA 1.2.	UDAL EKINTZA HERRITARRENGANA GERTURATU ETA PARTE-HARTZE AKTIBORAKO ESPAZIOAK SORTU	

Hezkuntza komunitatea herriko parte garrantzitsua da, eta horregatik, behin Udalak Tokiko 2030 Agenda Plana edukita, Zumadi Eskolako Agenda 2030 bultzatuko da, eskolaren eta udalaren arteko komunikazioa eta koordinazioa sustatuz, eta 2030 Agendaren hizkuntza amankomuna aprobetxatuz. Horretarako, eskolaren zuzendaritzarekin bilduko da Udala, Tokiko 2030 Agenda Plana aurkeztu eta ikastetxeko 2030 Agenda martxan jartzeko asistentzia emateko.


EPEA [Motza, Ertaina, Luzea]	LEHENTASUNA [Baxua, Ertaina, Altua]
Ertaina	Ertaina
KOSTUA [€]	GAIA [01-24]
0	22. KOORDINAZIOA
ARDURADUN NAGUSIA	BESTE ARDURADUNA
Alkateordea	Ingurumen Teknikaria

EKINTZA 1.2.3.	PLANAREN AURRERAPENAK HERRITARREKIN PARTEKATZEA ETA URTEKO KUDEAKETAN PARTE HAR DEZATEN ERRATZEA	
PROGRAMA 1.2.	UDAL EKINTZA HERRITARRENGANA GERTURATU ETA PARTE-HARTZE AKTIBORAKO ESPAZIOAK SORTU	

Ekintza honen helburua Tokiko 2030 Agendaren ebaluazioa eta tokiko jasangarritasun-adierazleen kalkulua argitaratzea da. Horretarako, lehenik eta behin, Planaren kudeaketa egingo da, eta horren emaitzak modu argi eta errazean argitaratuko dira, herritarrek ulertzeko helburuarekin.

Emaitza hauek Udalaren webgunean argitaratuko dira, eta Amezketa App aplikazioaren bidez emango dira aditzera.

EPEA [Motza, Ertaina, Luzea]	LEHENTASUNA [Baxua, Ertaina, Altua]
Motza	Altua
KOSTUA [€]	GAIA [01-24]
0	20. HERRITARREN PARTE-HARTZEA
ARDURADUN NAGUSIA	BESTE ARDURADUNA
Alkateordea	Idazkaria


EKINTZA 1.2.4.	UDALAREN ETA BIZILAGUNEN ARTEKO KOMUNIKAZIO-LANAK INDARTZEA ETA EGUNERATZEA	
PROGRAMA 1.2.	UDAL EKINTZA HERRITARRENGANA GERTURATU ETA PARTE-HARTZE AKTIBORAKO ESPAZIOAK SORTU	

Ekintza honen helburua Udalak herriko bizilagunei bere eguneroko ekintzaren berri ematea da. Alde batetik, herritarrei dagozkien gaien inguruko informazioa eta komunikazioa indartzeko gaur egun existitzen diren kanalak aztertu beharko dira: udal webgunea, AmezketApp, eskutitzak... haien eraginkortasunaren inguruko hausnarketa eginez.

Udalak urteroko ekintzaren kontu-ematea eta gardentasuna bermatzeko bideak aztertu eta definitzea da helburua, herritarrek Udalarengandik informazio eguneratua jaso ahal izateko, eta beraiek ere udalaren ekintzaren parte izateko.

EPEA [Motza, Ertaina, Luzea]	LEHENTASUNA [Baxua, Ertaina, Altua]
Motza	Altua
KOSTUA [€]	GAIA [01-24]
0	22. GARDENTASUNA
ARDURADUN NAGUSIA	BESTE ARDURADUNA
Idazkaria	Ingurumen Teknikaria


LE2. HERRITARREN ONGIZATEA ETA BIZI KALITATERAKO ESKAINTZA INTEGRALAZ GOZATZEN DUEN GIZARTEA

EKINTZA 2.1.1.	JUBILATUEN TXOKOAREN ESKAINTZA ZABALDU ETA ESPAZIOA DINAMIZATZEA	
PROGRAMA 2.1.	GUZTIONTZAT ETA ADIN GUZTIETAN BIZIMODU OSASUNGARRIA BERMATZEKO NEURRIAK HARTU	

Gaur egun Amezketako Jubilatuen Txokoa Kultur-Etxean kokatzen da. Nahiz eta espazioak hainbat baliabide eta aukera eskaintzen dituen, egun, herritarren profil oso konkretu bati zuzendutako ekintzak burutzen dira, adibidez, adineko pertsonentzako memoria eta gimnasia tailerrak.


Espazioak ematen dituen aukerak eta dauden baliabideak ikusita (kozintzeko eremua, errehabilitaziorako espazioa, sofa eta mahaidun egongela...) profil eta ezaugarri desberdinak dituzten biztanleei bideratutako ekimenak antolatzeko beharra identifikatu da. Hori dela eta, ekintza honen helburua, jubilatuekin batera espazioaren eskaintza berriak definitzea da, haien beharrei erantzungo dien programazioa eta dinamizazioa landuz.

EPEA [Motza, Ertaina, Luzea]	LEHENTASUNA [Baxua, Ertaina, Altua]
Luzea	Ertaina
KOSTUA [€]	GAIA [01-24]
50.000	11. ONGIZATEA ETA GIZARTERATZEA
ARDURADUN NAGUSIA	BESTE ARDURADUNA
Gizarte Langilea	Idazkaria

EKINTZA 2.1.2.	KULTUR-ETXEAN ESKAINTZEN DIREN JARDUEREN ESKAINTZA ZABALTZEA, ESKAERARI EGOKITUTAKO AUKERAK EMANEZ.	
PROGRAMA 2.1.	GUZTIONTZAT ETA ADIN GUZTIETAN BIZIMODU OSASUNGARRIA BERMATZEKO NEURRIAK HARTU	


Gaur egun Amezketako Kultur-etxean hainbat udal zerbitzu eskaintzen dira, besteak beste, gimnasioaren espazioa, sarrera modu autonomoan kudeatzen delarik. Eraikinak eman ditzakeen aukera guztiak kontutan edukita, herritarrek eskuragarri dituzten jardueren eskaintza aztertu eta eskaerari egokitutako jarduerak planteatzea du helburu ekintza honek.

EPEA [Motza, Ertaina, Luzea]	LEHENTASUNA [Baxua, Ertaina, Altua]
Ertaina	Ertaina
KOSTUA [€]	GAIA [01-24]
10.000	23. KULTURA
ARDURADUN NAGUSIA	BESTE ARDURADUNA
Kultur zinegotzia	Idazkaria

EKINTZA 2.1.3.	BELTZAREN PLAZAKO AISIALDI ETA KIROL GUNEA EGOKITZEKO EGITASMO ESTRATEGIKOA (ABIAN).	
PROGRAMA 2.1.	GUZTIONTZAT ETA ADIN GUZTIETAN BIZIMODU OSASUNGARRIA BERMATZEKO NEURRIAK HARTU	

Amezketako Beltzaren plazako aisialdi eta kirol gunea egokitzeko obra lanak egitea beharrezkotzat jo da, egungo azpiegiturak berriitu eta herriaren beharretara egokituz.

EPEA [Motza, Ertaina, Luzea]	LEHENTASUNA [Baxua, Ertaina, Altua]
Motza	Altua
KOSTUA [€]	GAIA [01-24]
180.000	1. LURRALDEA ETA ANTOLAMENDUA
ARDURADUN NAGUSIA	BESTE ARDURADUNA
Alkateordea	Arkitekto Teknikoa


EKINTZA 2.1.4.	KIROLA HERRIAN BERTAN SUSTATZEA, ESKAINTZA ANITZA PROPIOA LANDUZ	3 OSASUNA ETA ONGIZATEA 
PROGRAMA 2.1.	GUZTIONTZAT ETA ADIN GUZTIETAN BIZIMODU OSASUNGARRIA BERMATZEKO NEURRIAK HARTU	

Gaur egun herrian bertan ume zein gazteek entrenatu ditzaketen kirolen eskaintza dagoeneko existitzen diren taldeetara mugatzen da.

Kasu askotan, zenbait kirol egiteko, edo adin batetik aurrera jolastu ahal izateko, ondoko udalerrietara jotzeko beharra izaten dute, honek ekartzen duen mugikortasun beharrarekin.

Hori dela eta, ekintza honen bidez, herrian bertan egin daitekeen kirol eskaintza aztertu, eta ume, gazte zein helduekin batera beharrak identifikatzea da helburua.


EPEA [Motza, Ertaina, Luzea]	LEHENTASUNA [Baxua, Ertaina, Altua]
Motza	Ertaina
KOSTUA [€]	GAIA [01-24]
90.000	10. OSASUNA
ARDURADUN NAGUSIA	BESTE ARDURADUNA
Alkateordea	Idazkaria

EKINTZA 2.1.5.	ESKOLA-KIROLA SUSTATZEKO LANKETA EGITEA	
PROGRAMA 2.1.	GUZTIONTZAT ETA ADIN GUZTIETAN BIZIMODU OSASUNGARRIA BERMATZEKO NEURRIAK HARTU	

Amezketako Zumadi Eskolaren baitako eskola-kirola zerbitzua aztertu eta dauden beharrak identifikatzea, ikasleek herrian bertan kirol aukera zabalak izan ditzaten.

Xede hau lortze aldera Amezketako Udalak eta Akelok guraso elkarteak 2021 eta 2023 urte bitarteko lankidetzaren hitzarmena sinatu dute, baliabide ekonomikoak bermatuz eskola kirola sustatzeko.

EPEA [Motza, Ertaina, Luzea]	LEHENTASUNA [Baxua, Ertaina, Altua]
Motza	Altua
KOSTUA [€]	GAIA [01-24]
5.000	14. HEZKUNTZA
ARDURADUN NAGUSIA	BESTE ARDURADUNA
Akelok Guraso Elkartea	Alkateordea

EKINTZA 2.2.1.	UDAL BARRUAN GENERO IKUSPEGIAREN LANKETARI JARRAIPENA EMAN, HAINBAT PROZEDURATAN GENERO IKUSPEGIA TXERTATUZ.	
PROGRAMA 2.2.	BALIOAK ETA EZBERDINEN ARTEKO BIZIKIDETZA SUSTATZEKO BALIABIDEAK JARRI	

2021 eta 2022 urte bitartean udal barnean genero ikuspegiaren inguruko barne-lanketa bat burutu zen. Bestek beste, hainbat ondorio atera zirelarik:

- 1.- Borondatea dagoela lanketa egiteko udal antolamenduan
- 2.- Genero ikuspegiaren araudiaren inguruan ezjakintasuna nagusitzen dela eta udal langileak trebatu beharko dira arlo honetan


Ekintza honen helburua lanketa horri jarraipena eman eta genero ikuspegia udaleko prozedura desberdinetan txertatzea da: udalaren komunikazioetan, barne-lanketarako dokumentuetan, beste instituzioekin harremanetan etab.

EPEA [Motza, Ertaina, Luzea]	LEHENTASUNA [Baxua, Ertaina, Altua]
Ertaina	Ertaina
KOSTUA [€]	GAIA [01-24]
0	24. BERDINTASUNA
ARDURADUN NAGUSIA	BESTE ARDURADUNA
Berdintasun Zinegotzia	Idazkaria

EKINTZA 2.2.2.	GAZTEEKIN BERDINTASUNAREN ALDEKO BALOREAK ETA JARRERAK SUSTATZEKO JARDUERA ZEHATZAK ANTOLATU.	
PROGRAMA 2.2.	BALIOAK ETA EZBERDINEN ARTEKO BIZIKIDETZA SUSTATZEKO BALIABIDEAK JARRI	

Azken urteetan, orokorrean gazteengan antzeman diren jarrera eta joera desberdinak ikusita, berdintasunaren inguruko lanketa bat burutzea egokia ikusi da. Ekintza honen bidez, gazteekin tratu onak, harreman parekideak eta berdintasunaren inguruko baloreak jorratuko dituen programa bat diseinatu nahi da, herriko eragile desberdinekin elkarlanean (eskola, kirol-klubak, elkarteak etab.) gazteengana iritsi eta beraiekin elkartruckerako espazioak sortuz.


EPEA [Motza, Ertaina, Luzea]	LEHENTASUNA [Baxua, Ertaina, Altua]
Motza	Altua
KOSTUA [€]	GAIA [01-24]
3.000	24. BERDINTASUNA
ARDURADUN NAGUSIA	BESTE ARDURADUNA
Berdintasun Zinegotzia	Gazteria Teknikaria

EKINTZA 2.3.1.	ETORKINAK, OROKORREAN, UDALERRIAN HOBETO INTEGRATZEKO NEURRI ZEHATZAK AZTERTU	
PROGRAMA 2.3.	EUSKARA ETA HERRIKO ONDARE KULTURALA ERDIGUNEAN JARRI	

Amezketan herri txikia den arren, 1000 biztanleko immigrazio-tasa nahiko altua da, EAEko batz-besteakoarekin alderatuz, eta bereziki, Saharatik etorritako kolektiboak dauka pisua herrian.

Nahiz eta Zerbitzu Sozialen Saitetik familia hauen jarraipena egiten den, kasu gehienetan, modu nahiko isolatuan garatzen dute beraien bizitza, herriko dinamiketan txertatzeko zailtasuna topatzen delarik. Hori dela eta, Udaletik kanpotik datorren ororentzat harrera-protokolo bat garatzea du helburu, non, arlo burokratikoak lantzeaz gain, harrera-kulturala, hizkuntzaren lanketa, gizartean parte-hartze aktiboa sustatzea etab. jorratuko diren.

EPEA [Motza, Ertaina, Luzea]	LEHENTASUNA [Baxua, Ertaina, Altua]
Ertaina	Ertaina
KOSTUA [€]	GAIA [01-24]
2.000	11. ONGIZATEA ETA GIZARTERATZEA
ARDURADUN NAGUSIA	BESTE ARDURADUNA
Gizarte Zerbitzuetako Zinegotzia	Gizarte langilea

EKINTZA 2.3.2.	UDALERRIAREN ONDARE KULTURALA SUSTATZEKO EKINTZAK SUSTATU ETA BALIABIDEAK BIDERATU (FERNANDO AMEZKETARRA, ARALARKO MEATEGIAK ETAB.)	
PROGRAMA 2.3.	EUSKARA ETA HERRIKO ONDARE KULTURALA ERDIGUNEAN JARRI	


Amezketak hainbat elementu ditu herriko ondare kultural eta historikoari ekarpena egiten diotenak eta herriko izaera eta identitatean txertatuta daudenak.

Alde batetik, Fernando Amezketarra bertsolaria herriko pertsonaia famatu gisa, zeina herriko kultur-ondarearen zutabeetako bat den. Fernando Amezketarren inguruan egindako lana (ibilbideak, dokumentu historikoak, bertsoak etab.) balorean jarri eta lanketa hori egiten jarraitzea da ekintza honen helburua, batez ere, 2023. Urtean bere heriotzaren 200. urteurrena izango delarik.

Bestalde, herriko eta bere ingurune naturaletako ondare-historikoa ere lantzea da helburua, besteak beste, Aralarko meategiak; izan ere, Iberiar Penintsula mailan, Huelva inguruan aurkitutakoaz gain, ez da beste historiaurreko meategirik ezagutzen. Berau ezagutzeko bisita gidatuak, ibilbideak, errelatoak etab. prestatzeko lanketa egitea.

EPEA [Motza, Ertaina, Luzea]	LEHENTASUNA [Baxua, Ertaina, Altua]
Ertaina	Ertaina
KOSTUA [€]	GAIA [01-24]
20.000	23. KULTURA
ARDURADUN NAGUSIA	BESTE ARDURADUNA
Kultura Zinegotzia	Idazkaria


LE3. BALIABIDEEN KUDEAKETA IRAUNKORRA ETA ERABILERA ARDURATSUA SUSTATZEN DUEN HERRIA

EKINTZA 3.1.1.	UR-KONTSUMOAREN AZTERKETA ABIARAZI (ETXEETAN, JARDUERETAN...).	
PROGRAMA 3.1.	URAREN PEDAGOGIA SUSTATU: EZAGUTZA, ZAINZA ETA KUDEAKETA	

Amezketako ur-kontsumoa EAeko udalerrien batz-bestekoa baina nabarmenki handiagoa da. Hori ikusita, ekintza honek udalerriko ur-kontsumoaren inguruko azterketa bat abiaraztea du helburutzat. Azterketa honen bidez udalerriko etxebizitzetan zein jardueretan, eta udalak berak duen kontsumoa ere aztertzea da helburua. Diagnostiko hau baliatuz, eta kontsumo altuak non eta zergatik gertatzen diren aztertuz ekintza zuzenak diseinatu ahalko dira.


Horretarako, lehenik eraikin eta instalazioetan jarrita dauden kontagailuen egokitasuna eta beraien funtzionamendu egokia berrikusiko da. Ondoren, kontsumoak aztertu beharko dira uraren kontsumoa eraginkorragoa izateko neurriak hartzea baloratuz. Kontrol honek, udal establezimendu eta instalazioetan erabiltzen den baina kontabilizatu gabeko uraren kontsumoa murriztea ekarriko du.

EPEA [Motza, Ertaina, Luzea]	LEHENTASUNA [Baxua, Ertaina, Altua]
Luzea	Baxua
KOSTUA [€]	GAIA [01-24]
3.000	5. URA
ARDURADUN NAGUSIA	BESTE ARDURADUNA
Alkatea	Idazkaria

EKINTZA 3.1.2.	UR-HORNIDURA HOBKUNTZARAKO OBRAK EGIN UGARTE AUZOAN (MARTXAN).	6 UR GARBIA ETA SANEAMENDUA 
PROGRAMA 3.1.	URAREN PEDAGOGIA SUSTATU: EZAGUTZA, ZAINZA ETA KUDEAKETA	

Amezketako herri-gunetik aldentuta kokatzen da Ugarte Auzoa, eta aspalditik datorren herritarren eskaera izan da bertako ur-hornidura hobetzea. Horretarako, 2023an Amezketako saneamendu eta bidegorriaren lanak abian jarriko dira, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Gipuzkoako Ur Kontsotzioarekin elkarlanean. [Dagoeneko obrak martxan jarri ditu udalak.]


EPEA [Motza, Ertaina, Luzea]	LEHENTASUNA [Baxua, Ertaina, Altua]
Ertaina	Altua
KOSTUA [€]	GAIA [01-24]
211.000	5. URA
ARDURADUN NAGUSIA	BESTE ARDURADUNA
Alkatea	Idazkaria

EKINTZA 3.2.1.	4/2019 LEGEAREN ESKAKIZUNEKIN AURRERA EGIN, ENERGIAREN INGURUKO INBENTARIOAK, KONTSUMOEN NEURKETA ETA PLANAK BETEAZ.	
PROGRAMA 3.2.	ENERGIA ESKURAGARRIA, FIDAGARRIA, JASANGARRIA ETA MODERNOAREN ALDEKO NEURRIAK HARTU	

Ekintza honen helburua EAEko Jasangarritasun Energetikoari buruzko 4/2019 Legearen eskakizunei erantzutea da, 2030 urterako administrazioaren energia-kontsumoa %35 murriztuz, eta administrazioaren beraren energia-eskariaren % 32-a gutxienez energia-berriztagarriekin betez. 5.000 biztanletik beherako udalerrientzat, jarduera jakin batzuk eskualde mailan egitea aurreikusten du, adibidez, energia-jarduketako plana.


Tolosaldea Garatzen elkarteak, eskualdeko energiaren mahaiaren bidez (Amezketako Udalak parte hartzen du mahai horretan), eskakizun horien erantzuna koordinatzen ari da, eta horretarako, lehenik eta behin, 2021-2024 Energia Plana egin da, Legea betetzeko egin beharreko jarduerak definitzen eta lehenesten dituenak, Baitere,(Our City our Energy) mugikorretarako aplikazioa abian jarri da zeinaren bitartez herritarrek aukera izango baitute energiaren kontsumoei jarraipena egiteko.

EPEA [Motza, Ertaina, Luzea]	LEHENTASUNA [Baxua, Ertaina, Altua]
Ertaina	Ertaina
KOSTUA [€]	GAIA [01-24]
2.000	6. ENERGIA
ARDURADUN NAGUSIA	BESTE ARDURADUNA
Ingurumen Teknikaria	Arkitekto Teknikoa

EKINTZA 3.2.2.	ZAZPITURRIKO ZENTRAL HIDROELEKTRIKOAN EGUZKI PLAKAK JARTZEKO IKERKETA EGIN (MARTXAN)	
PROGRAMA 3.2.	ENERGIA ESKURAGARRIA, FIDAGARRIA, JASANGARRIA ETA MODERNOAREN ALDEKO NEURRIAK HARTU	

Zazpiturriko eremuan kokatutako zentral hidroelektrikoan eguzki planak jartzeko ikerketa bat martxan dago dagoeneko, eta ekintza hau epe motzean burutzeko asmoa du udalak.

EPEA [Motza, Ertaina, Luzea]	LEHENTASUNA [Baxua, Ertaina, Altua]
Ertaina	Ertaina
KOSTUA [€]	GAIA [01-24]
18.000	6. ENERGIA
ARDURADUN NAGUSIA	BESTE ARDURADUNA
Alkatea	Idazkaria

EKINTZA 3.2.3.	HERRIKO ESKOLAN BEROKUNTZA SISTEMA ALDATZEA.	
PROGRAMA 3.2.	ENERGIA ESKURAGARRIA, FIDAGARRIA, JASANGARRIA ETA MODERNOAREN ALDEKO NEURRIAK HARTU	


Herriko Zamudio eskolako berokuntza sistema aldatzeko helburua dauka udalak, eta epe motz-ertainean eguzki plakak eta gasaren bitartez doan berokuntza sistema instalatuko da udaran.

EPEA [Motza, Ertaina, Luzea]	LEHENTASUNA [Baxua, Ertaina, Altua]
Motza	Altua
KOSTUA [€]	GAIA [01-24]
55.000	6. ENERGIA
ARDURADUN NAGUSIA	BESTE ARDURADUNA
Arkitekto Teknikoa	Idazkaria

EKINTZA 3.2.4.	UDALERRIAN TOKIKO ENERGIA KOMUNITATEA ABIARAZI	
PROGRAMA 3.2.	ENERGIA ESKURAGARRIA, FIDAGARRIA, JASANGARRIA ETA MODERNOAREN ALDEKO NEURRIAK HARTU	

Gaur egun Euskadiko Autonomia Erkidego mailan hainbat ekimen jarri dira martxan energia-komunitateen inguruan, eredu eta egitura desberdinak jarraituz. Amezketaren kasuan, Gipuzkoako Foru Aldundiak sustatzen duen ereduari heltzea, eta bide horretan lanketa bat hastea da ekintza honen helburua.


EPEA [Motza, Ertaina, Luzea]	LEHENTASUNA [Baxua, Ertaina, Altua]
Ertaina	Altua
KOSTUA [€]	GAIA [01-24]
227.629	6. ENERGIA
ARDURADUN NAGUSIA	BESTE ARDURADUNA
Arkitekto Teknikoa	Idazkaria

EKINTZA 3.3.1.	HONDAKINEN SORRERA ETA BILKETARI BURUZKO ADIERAZLEAK AZTERTU ETA ETENGABEKO HOBEKUNTZARAKO LAN-LERRO BAT ABIARAZI	
PROGRAMA 3.3.	PREBENTZIOAN, BERRERABILPENEAN ETA BIRZIKLAPENEAN OINARRITUTAKO HONDAKINEN POLITIKAREKIN AURRERA EGIN	

2020ko uztailean Amezketako zabor bilketa sistema aldatu zen, organikoaren eta errefusaren edukiontzien erabilera mugatu zen txartelaren bidez, eta auzo-konpostaje guneak kendu ziren. Hortik aurrera, Tolosaldeako Mankomunitateak udalerriz udalerriko datuak ematen hasi da, eta ez landa-gune osokoak.

Hori dela eta, Amezketako udalak herriko hondakinen frakzio desberdinen datuak ditu hilabetero. Ekintza honen helburua, datu hauen jarraipena eta ebaluazio jarraia egiteko bideak definitzea da, etengabeko hobekuntzan oinarritutako lan-lerro bat abiaraziz.


EPEA [Motza, Ertaina, Luzea]	LEHENTASUNA [Baxua, Ertaina, Altua]
Ertaina	Ertaina
KOSTUA [€]	GAIA [01-24]
0	7. HONDAKINAK
ARDURADUN NAGUSIA	BESTE ARDURADUNA
Ingurumen Teknikaria	Idazkaria

EKINTZA 3.3.2.	ALDIZKA HERRITARREI HONDAKINEN SORRERARI ETA GAIKAKO BILKETARI BURUZKO INFORMAZIOA EZAGUTZERA EMAN	
PROGRAMA 3.3.	PREBENTZIOAN, BERRERABILPENEAN ETA BIRZIKLAPENEAN OINARRITUTAKO HONDAKINEN POLITIKAREKIN AURRERA EGIN	

3.3.1. Ekintzan definitutako lan-lerroa jarraituz, udalak hondakinen frakzio desberdinen inguruko hileko datuen jarraipen eta ebaluazioa egin ostean, modu periodikoan datu hauek herritarrei ezagutaraztea da ekintza honen helburua. Hau da, amezketarrei haien hondakinen sorkuntzaren inguruan informazioa helarazi, eta hobetzeko beharrak komunikatzea. Horretarako, webgunean aldizka informazio hau jasotzen atala sortu daiteke.

Gainera, datu hauen azterketan oinarrituta, sentsibilizazio edo kontzientziazio kanpainak edota ekintza zuzenak diseinatu eta burutuko dira, datu hauen etengabeko hobekuntza bilatuz.

EPEA [Motza, Ertaina, Luzea]	LEHENTASUNA [Baxua, Ertaina, Altua]
Ertaina	Ertaina
KOSTUA [€]	GAIA [01-24]
0	7. HONDAKINAK
ARDURADUN NAGUSIA	BESTE ARDURADUNA
Ingurumen Teknikaria	Idazkaria

EKINTZA 3.4.1.	UDALERRIAK KLIMA ALDAKETARI NOLA ERAGITEN DION AZTERTU ETA ADITZERA EMAN (BEROTEGI EFEKTUKO GASEN INBENTARIOA KALKULATU).	
PROGRAMA 3.4.	KLIMA ALDAKETAREN ALDEKO EKINTZA PLANIFIKATU ETA AURRERA ERAMAN	

Ekintza honen helburua udalerriak klima aldaketaren aurrean duen kalteberatasuna eta arriskua ezagutzeko datza, eta honek etorkizunean nola eragin diezaiokkeen aztertu.


Gainera, Udalsarea 2030-ek udalerrien eskura jartzen dituen tresnak erabiliz, udalerriko berotegi-efektuko gasen inbentarioa kalkulatu da aldian-aldian.

EPEA [Motza, Ertaina, Luzea]	LEHENTASUNA [Baxua, Ertaina, Altua]
Ertaina	Ertaina
KOSTUA [€]	GAIA [01-24]
0	8. KLIMA ALDAKETA ETA INPAKTU OROKORRA
ARDURADUN NAGUSIA	BESTE ARDURADUNA
Ingurumen Teknikaria	Idazkaria

EKINTZA 3.4.2.	UDALAREN ZAURGARRITASUNA ETA ARRISKUA AZTERTU ETA BERAU KONTUAN HARTU AHAPO-AN.	
PROGRAMA 3.4.	KLIMA ALDAKETAREN ALDEKO EKINTZA PLANIFIKATU ETA AURRERA ERAMAN	

Amezketako Hiri-Antolaketa Plan Orokor (AHAPO) berria idaztea aurreikusten da epe motzean, eta bertan klima-aldaketaren aldagaia txertatzeko beharra ikusten du udalak. Udallerriak klima-aldaketaren aurrean duen zaurgarritasuna eta arriskua aztertuz eta berau kontutan hartuz AHAPOa diseinatzeko orduan.


EPEA [Motza, Ertaina, Luzea]	LEHENTASUNA [Baxua, Ertaina, Altua]
Ertaina	Ertaina
KOSTUA [€]	GAIA [01-24]
13.000	8. KLIMA ALDAKETA ETA INPAKTU OROKORRA
ARDURADUN NAGUSIA	BESTE ARDURADUNA
Arkitektoa	Idazkaria

EKINTZA 3.4.3.	KLIMAREN ALDEKO ESKUALDEKO EKIMENETAN AKTIBOKI PARTE HARTZEA ETA EKIMEN HORIEK UDALERRIAN EZAGUTARAZTEA.	
PROGRAMA 3.4.	KLIMA ALDAKETAREN ALDEKO EKINTZA PLANIFIKATU ETA AURRERA ERAMAN	

Udalak egiten duen klima-aldaketaren inguruko barne-lanketaz gain (BEG inbentarioaren kalkulua, klima aldagaiak AHAPOn txertatzea...), baliteke eskualde mailan klima-aldaketaren inguruko lanketa edo proiektu ezberdinak garatzea. Amezketako Udalak proiektu horietan paper aktiboa hartu eta elkarlanean aritzea proposatzen da. Gainera, ekimen horiek herritarrei ezagutzera ematea eta informazio trukea erraztea sustatuko du.

EPEA [Motza, Ertaina, Luzea]	LEHENTASUNA [Baxua, Ertaina, Altua]
Ertaina	Ertaina
KOSTUA [€]	GAIA [01-24]
0	8. KLIMA ALDAKETA ETA INPAKTU OROKORRA
ARDURADUN NAGUSIA	BESTE ARDURADUNA
Ingurumen Teknikaria	Idazkaria

LE4. LANDA EREMU BIZI BATEKIN, BERE ONDARE NATURALAREKIN ETA BERTAKO INDUSTRIAREKIN BAT EGITN DUEN HERRIA

EKINTZA 4.1.1.	BERTAKO PRODUKTUEN KONTSUMOA SUSTATZEKO EKIMEN ZEHATZ BAT ABIAN JARTZEA.	2 GOSERIK EZ 
PROGRAMA 4.1.	LEHEN SEKTOREA SENDOTU ETA MARTXAN DAUDEN EKIMENAK BABESTU	

Amezketan 1. Sektorean lanean darabilten hainbat ekoizle daude, herrian bertan ekoizitako produktuak garatuz. Hala ere, produktu hauen distribuzio eta kontsumoa ez da beti herrian egiten, ekoizle bakoitzaren bere bide eta sareak izanik.

Eskualde mailan Jan Tolosaldea ekimena sortu zen, zeinak bertako produktuaren kontsumoan oinarritutako elikadura sistema sustatzea zuen helburu. Eta herritarrengandik sortutako beste ekimen bat jarri da ere abian eskualdean, elikadura burujabetza sustatzeko helburuarekin, Lurtaro Elkartea, hain zuzen.

Ekintza honen helburua bertako produktua hauek sustatzeko ekimen bat abian jartzea da, eskualde mailan antolatutako ekimenetatik ateratako ikasketak kontutan edukiz. Horretarako, bertako ekoizleekin mahai edo lan-talde espezifiko bat sortu daiteke, ekintza modu partekatuan bideratzeko.

EPEA [Motza, Ertaina, Luzea]	LEHENTASUNA [Baxua, Ertaina, Altua]
Ertaina	Ertaina
KOSTUA [€]	GAIA [01-24]
2.000	17. GARAPEN EKONOMIKOA
ARDURADUN NAGUSIA	BESTE ARDURADUNA
Tolomendiko Zinegotzi Ordezkaria	Idazkaria

EKINTZA 4.1.2.	AMEZKETAKO "LARRONDO" MENDI PUBLIKOKO BIDEAK HOBETZEA.	
PROGRAMA 4.1.	LEHEN SEKTOREA SENDOTU ETA MARTXAN DAUDEN EKIMENAK BABESTU	

Amezketako Udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak, elkarlanean, Goilarre programa dute Amezketako "Larrondo" mendi publikoan hobekuntzak burutzeko, hala nola, bideen garbiketak eta hobetzeak, xehaketak egitea, ganaduarentzako azpiegiturak ezartzea.


EPEA [Motza, Ertaina, Luzea]	LEHENTASUNA [Baxua, Ertaina, Altua]
Ertaina	Ertaina
KOSTUA [€]	GAIA [01-24]
35.000	2. BIOANIZTASUNA ETA INGURUMEN NATURALA
ARDURADUN NAGUSIA	BESTE ARDURADUNA
Alkatea	Arkitekto Teknikoa

EKINTZA 4.2.1.	AMEZKETAKO EREMU NATURAL EZBERDINEN INGURUKO JARDUERA-PROGRAMAK DEFINITU.	
PROGRAMA 4.2.	NATURA-ONDAREAN BALIOAN JARRI ETA TURISMO ESKAINTZA PROPIOA LANDU	

Herritarrek balio naturalen eta bertako biodibertsitatearen kontserbazioan paper garrantzitsua daukate, eta horregatik garrantzitsua da honen inguruko kontzientziazioa sustatzea. Amezketako herrian hainbat eremu natural daude, gehienak Aralarko Parke Naturalaren inguruan. Udalak, eremu hauetan ondare natural eta historikoa balioan jarri eta dibulgaziorako jarduera-programak edo ekimenak antolatzea du helburu, herritarrak eta kanpotik datozen pertsonak ingurune lurralde naturalaren zaintzan eta kontserbazioan partaide egitea da, horretarako beharrezko informazioa beraiei emanez. Besteak beste:

- Arritzagako indusketa arkeologikoetan brontze-aroeko meatzaritza-eremuaren dibulgazioan lanean jarraitzea.
- Arritzagan EAEko glaziar bakarra kokatzen da, eta bertako ondare naturala sustatzeko eta bere garrantzia aditzera emateko prozesua burutzea.
- Buruntzunzin Aterpetxea, meatzaritzako txabola izandakoa, sustatu eta baliabide gisa erabiltzea, besteak beste, Mendi-Astea edo bestelako jarduerak antolatuz.

EPEA [Motza, Ertaina, Luzea]	LEHENTASUNA [Baxua, Ertaina, Altua]
Ertaina	Ertaina
KOSTUA [€]	GAIA [01-24]
10.000	2. BIOANIZTASUNA ETA INGURUMEN NATURALA
ARDURADUN NAGUSIA	BESTE ARDURADUNA
Alkateordea	Idazkaria

EKINTZA 4.2.2.	IERABEGI BIZKAR ERROTA BERRIAREN PROIEKTUA AURRERA ERAMAN ETA HONEN INGURUKO JARDUEREN ESKAINTZA LANDU.	
PROGRAMA 4.2.	NATURA-ONDAREAN BALIOAN JARRI ETA TURISMO ESKAINTZA PROPIOA LANDU	

Udalerrian kokatzen den Pello Zabala Gunea berritzeko prozesuarekin jarraitu eta Amezketako turismo eta ondarearen gune berria sortu. Ekintza hau LEADER proiektuaren baitan kokatzen da, eta , eta bertako espazioa eta ondarea balioan jarriko duen jardueraprograma baten eskaintza lantzea da helburua.

Programa honen lanketa herritarrekin eta herriko elkarte zein eragileekin batera jorratu daiteke, adibidez, haien beharrak eta interesak jaso eta txertatzeko. Besteak beste, herriko ekoizleekin batera, tokiko produktuak saltzeko kamera bat, bisita gidatuak jaso ditzakeen taloak egiteko sukaldea etab. aurreikusten da.

Honez gain, udalak errota bera martxan jartzeko egin beharrezko berrikuntza lanak bideratuko ditu, bisitariei errotaren aitzinako funtzionamendua erakusteko.


EPEA [Motza, Ertaina, Luzea]	LEHENTASUNA [Baxua, Ertaina, Altua]
Motza	Altua
KOSTUA [€]	GAIA [01-24]
5.000	23. KULTURA
ARDURADUN NAGUSIA	BESTE ARDURADUNA
Alkateordea	Idazkaria

EKINTZA 4.3.1.	UDALERRIAN BERTAN KOKATUTA DAUDEN BI ENPRESA NAGUSIEKIN HARREMANAK ESTUTU	
PROGRAMA 4.3.	INDUSTRIA SEKTOREAREKIN HARREMANAK ESTUTU ETA ELKARLANERAKO BIDEAK ZABALDU	

Udalerrian bi enpresa nagusi kokatzen dira, zeinak herriko zein eskualdeko biztanleen kopuru handi bat enplegatzen dituzten. Zehazki, Aralarko Papelera eta Ogiberri dira. Gaur egun udalak ez du aparteko harreman esturik bi enpresa hauekin, legez egin beharreko tramiteez gain.

Agenda 2030ak ematen dituen aukerak ikusita, ekintza honen helburua da enpresa hauekin harremanak estutzea, eta aliantzak sustatzea: proiektu amankomunak sustatuz, elkartrukerako mahai bat sortuz, aktiboki informazioa elkar trukatzuz etab.

EPEA [Motza, Ertaina, Luzea]	LEHENTASUNA [Baxua, Ertaina, Altua]
Ertaina	Ertaina
KOSTUA [€]	GAIA [01-24]
0	17. GARAPEN EKONOMIKOA
ARDURADUN NAGUSIA	BESTE ARDURADUNA
Alkatea	Idazkaria

EKINTZA 4.3.2.	UDALERRIAN KOKATU DAITEZKEEN JARDUERA BERRIAK ERAKARTZEKO BIDEAK ZABALDU	
PROGRAMA 4.3.	INDUSTRIA SEKTOREAREKIN HARREMANAK ESTUTU ETA ELKARLANERAKO BIDEAK ZABALDU	

Amezketako Udalak, AHAPO idazketaren prozesuan, jarduera ekonomikoak jasotzeko kalifikazioa izango duten lur eremuak zehaztuko ditu, jarduera berriak ezartzeko aukerak sortuz.

EPEA [Motza, Ertaina, Luzea]	LEHENTASUNA [Baxua, Ertaina, Altua]
Luzea	Ertaina
KOSTUA [€]	GAIA [01-24]
0	1. LURRALDEA ETA ANTOLAMENDUA
ARDURADUN NAGUSIA	BESTE ARDURADUNA
Alkatea	Idazkaria


AMEZKETAKO TOKIKO 2030 AGENDAREN JARRAIPEN PROPOSAMENA

Plana elementu bizia eta erabilgarria izan dadin, bere ebaluatu eta jarraipena egitea ezinbestekoa da, plan eta politika publikoen kudeaketa eraginkorra eta administrazioaren gardentasuna sustatuz. Honek, Udalak herritarrekiko duen gertutasunean laguntzen du, eta beraiek udal politiken kudeaketan parte hartze aktiborako bidea errazten du.

Ondoren proposatzen den jarraipenerako planteamenduak **Udalsarea 2030en** baitan proposatzen diren erraminta eta metodologiak kontutan hartzen ditu, baliabide komunak aprobetxatuz, eta datuak konparagarri eginez.

- Urtero, planaren **ebaluazioa** egingo da, bere ezarpen-maila neurtzeko eta, beharrezkotzat jotzen bada, Planaren eguneraketa egiteko (ekintzak birformulatu edo ekintza berriak sartu).
- Aldi berean, planean definitu diren **adierazleen kalkulua** egingo da, aurrera eramaten ari diren ekintzei esker lortzen ari diren emaitzak neurtu ahal izateko.
- Gainera, hurrengo urtera begira martxan jar daitezkeen jarduerak **programatuko** dira, lan hau udal aurrekontuen lanketarekin lotuta egongo delarik.

Planaren urteroko jarraipen hau egingo duen **lan-talde edo mahai** bat sortuko da, udaleko teknikari eta ordezkari politikoez osatuta, Planaren definizioan parte-hartu duten partaideak kontutan hartuz.





Amezketako Udala